50 URTE BETEKO DITUT !!!!

Heldu den irailan 50 urte beteko ditut !!!!!!!

1967ko irailean sortu ninduten, gaur egun *"Kultur Etxea"* bezala ezagutzen den horretan (orduan *"alhondiga"* bezala ezagutzen zuten).

Pixkanaka-pixkanako haunditzen joan nintzen, Kultur Etxetik atera ninduten, eta "Toki Onako" eremuetan paratu ninduten.

Ordurarte ez neukan izenik, baino 1992 urtean izen ponpoxo bat jarri zidaten, eremuaren izen bera jarri zidaten : *"Toki Ona".*

Seguru aski bortziritar aunitzen bizipenen parte bat izanen naiz, 3,500 lagun pasa ezagutu baititut nere baitan. Batzuk gustura etortzen ziren neregana, bertze batzuk ez hainbertze, eta zenbaitzuk ikusi ezina ninduten. Bainan denboraren poderioz, gehienek niri buruzko sentsazio onak gordetzea espero dut.

Aipatu bezala, laister 50 urte beteko ditut, eta hori ospatzeko, ekitaldi batzuk antolatzeko asmoa daukat. Oraindik zehaztu gabe ditut, bainan adi zaudete heldu den udazkenetik hasi eta ondoko udaraino, epe horretan izanen duzuelako nire berri.

Beraz, Toki Ona institututik pasatu zareten guztiei, edo bertze gisara nirekin harremanak izan dituzuenoi: estimatuko dut antolatuko ditudan ekitaldietan parte hartzea , eta bertze gisa ere: mila esker urte hauetan nere parte bat izateagatik !!!!!

Toki Ona Institutua

ONGI PASA BESTAK!!

Garbi ogi&coffee
KAFETEGIA - OKINDEGIA

- TERRAZA
- IZOZKI BEREZIAK
- ETXEKO BATIDOAK
- APERITIBOAK (pintxoak, ardoak, garagardoa...)
- BOKATAK ETA PIZZAK (bertan jateko edo etxera eramateko)
- TARTA ETA PASTEL FRESKOAK ENKARGUZ

Iturlandeta, 6 · BERA · 948 625 673

07:30-13:30 / 17:00-21:30era.
Asteazken arratsaldetan itxita.